

3. DOKUMENTUA. ETAPA PLANA ETA HORREN KUDEAKETA

3.1.	NERBIOIKO PARKE LINEALAREN ARDATZ EGITURATZAILEA	76	
	3.2.	ETAPA PLANAREN LABURPEN TAULA 77	
		3.3.	AUKERAKO EREMUAK 79
		3.4.	SUSPERTZE AGENTZIA 81

3.1. NERBIOIKO PARKE LINEALAREN ARDATZ EGITURATZAILEA

Hasiera batean, Parke Linealaz gozatu ahal izateko lehentasun nagusia haren ardatz egituratzailea gauzatzea da. Epe laburrerako lehentasun nabarmena da.

Parkearen ardatz egituratzailea lurralde-azpiegiturei dagozkien hiru sistema hauen arteko loturak osatzen du:

- Jabari Publiko Hidraulikoa.
- Hodi biltzaileak eta HUA.
- Pasealekua edo *bidegorria*, parke osoan zehar eta trenbidearen geltoki eta geralekuekin eraginkortasunez lotuta.



Aipatutako egituraren inguruan, hura gauzatu ondorengo faseetan, Nerbioiko Parke Linealari itxura zabalagoa eta amaituagoa emango dioten beste espazio batzuk egituratu daitezke. Izan ere, deskribatzen ari garen ardatza multzoa egonleku, espazio adierazgarri, kirol-instalazio eta paseatzeko ibilbide berriez osatzen joango da.

3.2. ETAPA PLANAREN LABURPEN TAULA. PROIEKTUAK ETA LEHENTASUNAK

2. Araudia dokumentuan, VI. Banakatutako araudia kapituluan, Plan Berezia garatzeko bidea ematen duten ekintza estrategikoak, desjabetze-ekintzak eta proiektuak zehazten dira. Tarteka zehaztuta daude, eta lehentasun-maila hauetako bat ematen zaie: handia, ertaina edo txikia.

Ondoko taulan, proiektuak eta lehentasunak tarteka laburtuta daude. Horiek Nerbioiko Parke Linealerako Plan Bereziaren Etapa Planaren funtsa osatzen dute.

	HANDIA	ERTAINA	TXIKIA
1. TARTEA DELIKAKO UR JAUZIA	EEP.1.1: ur-jauzirako sarbideak hobetu eta seinaleztatzeko, eta zubiak egokitzeko proiektua.		EEP.1.2: errota birgaitzeko proiektua.
2. TARTEA DELIKAKO HIRIGUNEA		EEP.2.2: aparkaleku-proiektua Delikan.	EEP.2.1: Delikako hirigunean, ibaiari lotutako elementuak egokitzeko, irudia hobetzeko eta landareberritzeko proiektua.
3. TARTEA DELIKAKO IBARRA		EEP.3.1: proiektu bateratua, Delikako ibarraren aukerako eremurako, eta errepidearekiko paralelo joango diren hodi biltzailerako eta bidegorrirako.	
4. TARTEA URDUÑAKO MAKALDIA			EEP.4.1: ibai-bazterretako bidexkak eta azpiko pasabideak egokitzeko proiektua. EEP.4.2: aparkaleku-proiektua, Urduñako hilerriaren ondoan.
5. TARTEA URDUÑAKO KIROL ZONA	EEP.5.2: Urduñako HUArako proiektua.	EEP.5.1: Urduñako kirol-zonaren aukerako eremuko proiektu bateratua.	EEP.5.3: Urduñako bizikleta-biderako eta/edo oinezkoentzako biderako proiektua.
6. TARTEA SARATXO	EEP.6.1: bizikleta-biderako eta hodi biltzailerako proiektu BATERATUA, A-625 saihebidetako proiektuan barne hartutakoa. EEP.6.2: Saratxoko espazio publikorako proiektua.		EEP.6.3: Nerbioi ibaiaren bazterretan, Saratxoko igarobidean, oinezkoentzako bideak egiteko eta elementuak egokitzeko proiektua.
7. TARTEA SARATXOKO INDUSTRIA POLIGONOA			
8. TARTEA EL REFOR			
9. TARTEA AMURRIO - IBAI PARKEA			
10. TARTEA	EEP.10.1: bizikleta-biderako	EEP.10.2: oinezkoentzako	

AMURRIO IPARRALDEA	eta ibai-bazterrak egokitzeko proiektua.	biderako proiektua.	
11. TARTEA TUBOS REUNIDOS	EEP.11.1: bizikleta-biderako eta ibai-bazterrak egokitzeko proiektu BATERATUA.		
12. TARTEA MARKIJANA-IZORIA	EEP.12.1: Markijanako HUArako proiektua. EEP.12.2: bizikleta-biderako eta ibai-bazterrak egokitzeko proiektu BATERATUA.		
13. TARTEA LUIAONDO	EEP.13.2: bizikleta-biderako eta hodi biltzailerako proiektu bateratua.	EEP.13.1: Luiaondoko ibai-parkearen aukerako eremurako proiektu bateratua.	
14. TARTEA GARDEA	EEP.14.1: bizikleta-biderako eta ibai-bazterrak egokitzeko proiektua.		
15. TARTEA LAUDIO			
16. TARTEA BITORIKA-ARETA			
17. TARTEA ANUNTZIBAI	EEP.17.1: Basaurbeko HUArako, hodi biltzailearen azken tarterako eta ponpaketa-estaziorako proiektua.	EEP.17.2: Anuntzibaiko aukerako eremurako proiektu bateratua. EEP.17.3: bizikleta-biderako eta ibai-bazterrak egokitzeko proiektua.	
18. TARTEA ARAKALDO			EEP.18.1: bizikleta-biderako eta ibai-bazterrak egokitzeko proiektua.
PROIEKTU OROKORRA		PO.1: eguzki-sistema eskalan garatzeko proiektua.	

3.3. AUKERAKO EREMUAK

Amurrion, Nerbioi ibaiaren ibilgua Ibai Parkearekin batera tratatzeko ekimenak plangintza orokorrean eta garapenekoan daude bideratuta eta egituratuta. Hortaz, Plan Bereziaren dokumentu honetan ez dira berariaz jasotzen. Nolanahi ere, ez da ahaztu behar ekimen horiek gauzatzearen garrantzia eta premia. Erabateko lehentasuna du horrek, biztanle-kopuru handiari eragiten baitio.



Aukerako eremu hauek ere lehentasun osoa dute:

- Delikako ibarra, ziur asko izango duen eraginagatik Urduñako uraldiak laminatu, goi-ibarreko akuiferoak bete, parkea mantendu eta kontserbatzeko mintegiak instalatu, eta aisia eta olgetako espazio gehiago kokatzeko garaian.
- Urduñako kirol-zona. Hura zabaltzeak oraingo kirol-zonari eskualde-ekipamenduaren maila emango lioke.
- Luiaondoko ibai-parkea, uraldien aurrean hirigunearen segurtasuna areagotuko lukeelako, tokiak paisaia-ahalmen handia duelako, Laudiotik gertu dagoelako eta horrek pasealekuari zirkuituaren maila emango liokeelako.
- Nerbioiko Parke Linealerako sarbide-atea, Anuntzibain, sargune edo irisgune egokiena delako, errepidetik gunerik iristerrazena delako (A-68 autobideko

ordainlekuaren ondoan dago), eta tokiak eta bertako aurriek interes kultural handia dutelako.

Gainontzeko aukerako eremuak jardun-maila txikiagokoak dira. Bigarren mailako lehentasuna dute; etorkizunean sor daitezkeen eta eremu horiek abiaraztera bultzatzen diren egoera bereziki aldekoetan salbu.

3.4. PROIEKTU PILOTUAK

Parke Linealaren ardatz egituratzailea gauzatzeak duen garrantzia aztertu ondoren, Plan Berezi honetan jasotako jardunen lehentasun-maila ere aztertuta, eta aukerako lau eremuen eta Amurrioko ibai-parkearen garrantzia kontuan izanda, proiektu pilotuetako batzuek izan lezaketen garrantzia eman behar da aditzera, hemen antolatzen denaren antzeko hiri inguruko parkearen ahalmenei dagokienez, erakusgarria gisa eta pedagogiaren aldetik izan dezaketen eraginagatik.

Proiektu pilotuek, zentzuz hautatu eta abiaraziz gero, Nerbioiko Parke Linealaren proiektu osoa bultzatzea dezakete. Helburu dugun prozesuan funtsezkoak diren lehen urrats horiek gauzatzeko bidea eman dezakete.

Proiektu pilotuak hautatzeko irizpideak:

- Nerbioiko Parke Linealaren ardatz egituratzailea finkatzearen lehentasunarekin koherenteak izatea: ibaia osorik saneatzea, bidegorri gehiago, tren gehiago.
- Lehentasunez, jabari publikoko lurzoruari eragitea, edota jarduna erraz bateratu ahal izatea.
- Azpiegiturak bultzatzen dituzten proiektu handiekiko independenteak izatea.
- Orokorrakoak diren beste proiektuekin lotzea.
- Bertako biztanleriaren zati handi batentzat onuragarri izatea, eta jarduna lurralde osoan hedatzea.
- Kostu txikikoak izan arren, erakusgarri gisa eragin handia izatea.
- Jardunak behin betikoak izatea.

Gomendatutako proiektu pilotua: *Bidegorriaren* bitartez, Laudioko Gardea auzoa Aiarako udalerriko Luiaondoko hirigunearekin lotzea.

Onura nagusiak:

- Tarte horretan, printzipioz, ez da saneamenduko hodi biltzailerik eraikitzea aurreikusi. Horregatik, proiektuak NPLaren lotura zaileko tarteak elkartuko lituzke.
- Laudioko pasabideen sareari balioa ematen dio eta luzatu egiten du.
- Trazadura jabari publikoko lurzoruetatik igaro daiteke.

- Bi biztanlegune garrantzitsu elkartzen ditu.
- NPLa abiarazteko bultzada handia ematen du.

Eragozpen nagusiak:

- Trazaduraren tarte asko jabari publiko hidraulikoan daude, eta horrek proiektu zaila eta delikatua eskatzen du.



Gomendatutako beste proiektu pilotu batzuk:

- Amurrioko ibai-parkea gauzatu dadin erraztea. Jadanik badu proiektu bateratu bat, alboko lurzoruen hirigintza-kudeaketan oinarritutakoa, baina hutsune batzuk gera daitezke El Refor-eko eremuarekin lotzeari eta beste arazo batzuei dagokienez.
- Amurrion, Tubos Reunidos eta Tubacex-ekin hitzarmena sinatzea, industria-instalazioek NPLarekiko eta Nerbioi ibaiarekiko ematen duten irudia hobetzeko jardunak aurrera eramatearren.
- Luiaondoko ibai-parkerako proiektu bateratua, honako hauek jasoko dituen: ibilguaren aldagai hidraulikoa; erabateko saneamendurako azpiegiturak eta hirigunea hornitzekoak; pasealekuak eta olgetarako espazio publikoak sortzea; ibaiertzetako landarediaren eta lorategien tratamendua; sareen eta bideen trazadurari jarraitutasuna ematea ziurtatzeko behin-behineko konponbideak; ibaiari lotutako ondare historikoari balioa ematea; etab.

3.5. SUSPERTZE AGENTZIA

Nerbioiko Parke Linealerako Plan Bereziaren kasuan, plana zeinek kudeatuko duen esatea ez da gauza erraza, baina hori ere ez da ahaztu behar.

Aiarako Eremu Funtzionalerako LZParen Memorian, haren proposamenak aurrera eramateko suspertze-agentzia baten beharra aipatzen da eta, eskualdeko erakunde-egitura erreparatuz, agentzia hori Aiarako Koadrilaren beraren inguruan artikulatzeko aukera ematen da aditzera.

Dauden administrazioetako bakoitzak bere kasa duen ahalmenarekin, Parke Linealaren ekimen txiki batzuk baino ezingo lirateke gauzatu. Arlokako jarduna gaindituta, administrazioen artean lankidetzan arituta eta ekinez jardunda baino ez da bideragarria Plan Berezi hau.

Nerbioiko Parke Linealaren gauzatzea suspertuko duen erakundean edo agentzian, jakina, inbertsioaren aldetik erantzukizun handiena duten administrazioek egon behar dute, bereziko administrazio hidraulikoak. Baina, gainera, errepide, ingurumen, turismo eta denbora libre, kirol, kultura eta bestelako arloetan eskumena duten Eusko Jaurlaritzako, eta Araba eta Bizkaiko foru-aldundietako sailek ere parte hartu behar dute.

Beste administrazio-maila batean, udalen inplikazioa ezinbestekoa da, baina baita ere administrazio-batzarrena, Plan Bereziarekin buru-belarri hartu behar baitute konpromisoa.

Dokumentu honetan adierazitako ekimenak sustatzeko, erakunde publikoen eta pribatuen arteko lankidetzarako aukerak ez dira ahaztu behar.

Bereziki, RENFEri buruz ari gara, aldiriko tren-zerbitzuaren ustiatzaile den heinean. Izan ere, garraio bide gisa trena eta bizikleta konbinatzeko aukerak urtez urte garrantzi handiagoa hartuko du.

Tokiko enprekin ere lankidetzan aritu behar da, ekimen batzuen babesle izan daitezten; bai eta ostalaritzaren sektorearekin, Parke Lineala funtsezkoa den zerbitzuaz hornitzeko, eta A-68 autobidearen emakida duen enpresarekin ere.



Suspertze Agentzia ekipamendu-mota hori kudeatu eta kontserbatzen esperientzia duten beste administrazio batzuekin ere lankidetzan aritu daiteke. Urrutira joan gabe, Gasteizko Ingurumen Azterlanen Udal Zentroa aitzindaria eta adibide egokia da arlo horretan.

Azkenik, Nerbioiko Parke Linealaren egituraren eta espazioen zati garrantzitsuak gauzatu ondoren, berehala, horiek bezain garrantzizkoa den eginkizuna sortzen da, hots: parkea kontserbatu eta hobetzea.

Nerbioiko Parke Lineala, lehen esan bezala, epe luzerako aupada da. Parkea kontserbatu, mantendu eta hobetzeko eginkizuna hura eraikitzea bezain garrantzitsua edo are garrantzitsuagoa da. Gastu handia dakar, eta horretaz ere jabetu behar gara.

Suspertze Agentziaren kudeaketa teknikoa, Plan Berezi honek xede duen Parke Lineala gauzatu eta kontserbatzeari dagokionez behinik behin, administraziotik kanpoko laguntza teknikoaren bidez eraman daiteke.

Laguntza hori malgutasunez molda daiteke, ekin beharreko kudeaketa-etapen bizitasun-mailaren arabera, eta aldatu ere egin daiteke, egin beharreko zerbitzu-motaren arabera. Lehen etapetako proiektuak eta obrak kudeatzetik, mantentzea eta kontserbazioa kudeatzera pasatu daiteke.

Kanpoko kudeaketa horrek Administrazioari ez dio egitura-gastu gehigarririk ekarri behar. Nolabaiteko sofistikazio teknikoa eskatzen duen zerbitzu horretarako dagoeneko badago eskaintza EAEko merkatuan.

Gogoeta horiek hirigintza-plan batean funtsezkoak ez badira ere, bidezkoak dira eta garrantzitsua da lehenbailehen horietan sakontzea.

Behin betiko onartzen den arte, Plan Bereziaren bideratzean eta entzunaldian, egiteko dagoen zeregin horretarako jarraibideak ezar daitezke. Eginkizun hori berariazko hitzarmen batean jaso daiteke; ahal dela, plangintza bateratuenen tradizioari jarraituz, konpromiso ekonomiko zehatzekin.